

**INDUSTRI, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA****Zk-4616**

255/1998 DEKRETUA, irailaren 29koa, Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintzirak babestutako biotopotzat deklaratzeko zituen dekretua aldatzen duena, Musco izena duen aintzira biotopo horren eremuan sartu ahal izateko.

Laguardiako Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintzirak babestutako biotopotzat deklaratu ziren irailaren 19ko 417/1995 Dekretuaren bidez.

Musco aintzira, drenatuta, lehortuta eta landuta zegoen deklarazio hori egin zenean. Titularitatea pribatua zen gainera. Horiek horrela, Laguardiako aintziren artean baldin bazegoen ere, ez zen sartu babestutako biotopoak hartzen zuen eremuaren barruan, baina bai babesketarako inguruaren barruan.

Hala ere, Musco aintzira babestutako biotopoak hartzen zuen eremutik kanpo gelditzen bazen ere, geroan barneratzeko oinarriak jartzen dira 417/1995 Dekretuko gehigarriko xedapenean, izan ere, Musco aintzira hori bereonertzeko programa landu behar dela ezartzen baitzen bertan. Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailari eta Babestutako Biotopoaren Organo Kudeatzaileari ematen zitzaizkien horren ardura.

Musco aintzirak hartzen dituen lurak erosi egin ditu Arabako Foru Aldundiak eta, ondorioz, espazio hori birreskuratzeko bidea irekita gelditu da eta orain posible da Babestutako Biotopoaren eremuaren barruan sartzea. Horixe da hain zuzen dekretu honen helburua. Laguardiako aintziragunea izenaz ezagutzen da eremu hori.

Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean xedatzen denaren arabera, Euskal Herriko Natura Babesteko Kontseilu Aholkuemaileak (Naturzaintza) txostena egin du Laguardiako Aintziraguneko Babestutako Biotopoa handiagotzeki buruz. Aldezko iritzia eman zuen 1998ko ekainaren 15ean egin zuen bilkuran. Era berean, Landalurren Garapenari buruzko apirilaren 8ko 10/1998 Legean xedatzen dena beteaz, Landalurren garapen-arloan instituzioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzeko organoek ere (Landaberri eta Landaraba) landu zuten txosten bat, aintziraren areagoketa horri buruzkoa hain zuzen.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailbueraren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko irailaren 29an egin zuen bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**1. atala.**– Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintzirak, babestutako biotopotzat dekla-

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
AGRICULTURA Y PESCA****Nº-4616**

DECRETO 255/1998, de 29 de septiembre, por el que se modifica el Decreto de declaración del biotopo protegido de las Lagunas de Carralogoño, Carravalseca y Prao de la Paul para incluir en su ámbito territorial la Laguna de Musco.

Mediante Decreto 417/1995, de 19 de septiembre, se declaró Biotopo Protegido las Lagunas de Carralogoño, Carravalseca y Prao de la Paul en Laguardia.

La Laguna Musco, a la fecha de tal declaración, se encontraba drenada, desecada y cultivada; la titularidad de los terrenos estaba, además, en manos privadas. Por todo ello, aún perteneciendo al complejo lagunar de Laguardia, no fue incluida inicialmente dentro del ámbito del Biotopo Protegido, aunque sí en su zona periférica de protección.

No obstante, aun quedando fuera del ámbito del Biotopo Protegido, el Decreto 417/1995 estableció en su Disposición Adicional las bases para su futura inclusión, al prever la elaboración entre el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca y el Órgano Gestor del Biotopo Protegido de un programa de recuperación de la Laguna de Musco.

La adquisición por la Diputación Foral de Álava de los terrenos afectos a la Laguna de Musco ha permitido iniciar de manera eficaz la recuperación de este espacio, haciendo posible su inclusión en el ámbito del Biotopo Protegido, ahora denominado del Complejo lagunar de Laguardia, fin al que se dirige el presente Decreto.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, la ampliación del Biotopo Protegido del Complejo Lagunar de Laguardia ha sido sometida a informe del Consejo Asesor de la Conservación de la Naturaleza del País Vasco-NATURZAINZTA, que lo emitió favorablemente en sesión de 15 de junio de 1998. Asimismo, y en cumplimiento de la Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural, fue sometida esta ampliación a informe de los órganos de colaboración y coordinación interinstitucional en materia de desarrollo rural, Landaberri y Landaraba.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 29 de septiembre de 1998,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Es objeto del presente Decreto modificar el Decreto 417/1995, de 19 de septiembre, por el

ratzen zituen irailaren 19ko 417/1995 dekretua aldatzea da dekretu honen helburua eta bai biotopo horren eremua areagotzea ere Musco aintzira biotoporatuaz.

**2. atala.**– Carralagroño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintzirak, babestutako biotopotzat deklaratu ziren irailaren 19ko 417/1995 Dekretuaren bidez. Orain aldatu egiten da eta honako era honetan idatzita geldituko da:

1.– Irailaren 19ko 417/1995 Dekretuaren bidez deklaratu eta Laguardiako Carralagroño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintzirek osatzen duten babestutako biotopoaren izena, Laguardiako Aintziragunearen Babestutako Biotopoa izango da aurrerantzean. Ondorioz, «Laguardiako Carralagroño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintziren Babestutako Biotopoa» delakoari buruz dekretu horretan egiten diren aipamenak, «Laguardiako Aintziraguneko Babestutako Biotopoa» izenaz ordezkatu beharko dira.

2.– Irailaren 19ko 417/1995 Dekretuko 2. atala, honako era honetan idatzita geldituko da:

«2. atala.– Hartzen duen lurraldea.

Laguardiako Aintziraguneko Babestutako Biotopoak, Laguardiako (Araba) Carralagroño, Carravalseca eta Prao de la Paul izeneko aintziren ohea eta ertzak hartuko ditu.»

3.– Irailaren 19ko 417/1995 Dekretuko 3. atala, honako era honetan idatzita geldituko da:

«3. atala.– Babestutako biotopoari buruzko arauak.

1.– Carralagroño eta Carravalseca aintziren ohe eta ertzei dagokienetan:

a.– Baimenpeko erabilerak.

– Bat bakarra bera ere ez.

b.– Erabilpen baimengarriak.

– Arakaketa eta ikerketa zientifikoak.

– Naturan bertan jatorria ez duen gertakari larriren bat gertatuz gero, ingurua hobetzeko eta bereoneratzeko jardunak burutzeko baimena eman ahal izango da.

c.– Debekupeko erabilerak.

– Guztiak, erabilera baimengarriak izan ezik.

2.– Prao de la Paul aintzirearen ohe eta ertzei dagokienetan:

a.– Baimenpeko erabilerak.

– Arakaketa eta ikerketa zientifikoak.

b.– Erabilera baimengarriak.

– Berroaren kudeaketa lanak, alegia, berori egokitzea xedetzat dutenak.

c.– Debekupeko erabilerak.

– Guztiak, baimenpekoak eta baimengarriak diren erabilerak izan ezik.

que se declara Biotopo Protegido las Lagunas de Carralagroño, Carravalseca y Prao de la Paul, para ampliar su ámbito territorial incluyendo la Laguna de Musco.

**Artículo 2.**– El Decreto 417/1995, de 19 de septiembre, por el que se declara Biotopo Protegido las Lagunas de Carralagroño, Carravalseca y Prao de la Paul, queda modificado en los términos que se indican a continuación:

1.– El Biotopo Protegido de las Lagunas de Carralagroño, Carravalseca y Prao de la Paul en Laguardia, declarado por Decreto 417/1995, de 19 de septiembre, pasará a denominarse Biotopo Protegido del Complejo Lagunar de Laguardia. En consecuencia, las referencias que en dicho Decreto se contienen hacia el «Biotopo Protegido de las Lagunas de Carralagroño, Carravalseca y Prao de la Paul en Laguardia» quedarán reemplazadas por las de «Biotopo Protegido del Complejo Lagunar de Laguardia».

2.– El artículo 2 del Decreto 417/1995, de 19 de septiembre, queda redactado como sigue:

«Artículo 2.– Ámbito territorial.

El Biotopo Protegido del Complejo Lagunar de Laguardia comprenderá los lechos y riberas de las Lagunas de Carralagroño, Carravalseca, Musco y Prao de la Paul en Laguardia, Álava.»

3.– El artículo 3 del Decreto 417/1995, de 19 de septiembre, queda redactado como sigue:

«Artículo 3.– Normativa del Biotopo Protegido.

1.– En los lechos y riberas de Carralagroño y Carravalseca:

a.– Usos permitidos.

– Ninguno.

b.– Usos autorizables.

– Observación e investigación científica.

– Ante alteraciones graves de origen no natural podrán autorizarse actuaciones de mejora y restauración ambiental adecuadas.

c.– Usos prohibidos.

– Todos salvo los usos autorizables.

2.– En el lecho y ribera de Prao de la Paul.

a.– Usos permitidos.

– Observación e investigación científica.

b.– Usos autorizables.

– Trabajos de gestión del humedal encaminados hacia la adecuación del mismo.

c.– Usos prohibidos.

– Todos salvo los usos permitidos y autorizables.

3.- Musco aintziraren ohe eta ertzei dagokienetan:

a.- Baimenpeko erabilerak.

- Bat bakarra bera ere ez.

b.- Erabilera baimengarriak.

- Arakaketa eta ikerketa zientifikoak.

- Berroaren kudeaketa lanak, alegia, berori egokitzea eta bereoneratzea xedetzat dutenak.

c.- Debekupeko erabilerak.

- Guztiak, erabilera baimengarriak izan ezik.»

4.- Irailaren 19ko 417/1995 Dekretuko 4. atala, honako era honetan idatzita geldituko da:

«4. atala.- Inguru babeslea.

1.- Laguardiako Aintziragunearen Babestutako Biotopoaren inguru babeslea, honako hau izango da:

a) Carralagroño, Carravalseca eta Musco aintziren kasuan: urisuriak hartzen dituen eta babestutako eremua inguratzen duen arro naturala, 25 metrora arte A-124 errepideko hegoalderantz.

b) Prao de la Paul aintziraren kasuan: 100 metroko zirrindara bat babestutako eremuaren inguruan; beste hau ere bai, alegia, San Gines ibaitik ura hartzeko hoditeria gainean duen beste lurzirrindara bat.»

5.- Irailaren 19ko 417/1995 Dekretuko 5.1 atalean «Carralagroño eta Carravalseca aintzirak» delakoari buruz egiten diren aipamenak, «Carralagroño, Carravalseca eta Musco aintzirak» delakoei buruzko aipamenaz ordezkatu beharko dira.

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Laguardiako aintziragunearen eta honen inguru babeslearen babespeko biotopoaren lurraldea errepresentatzen duen kartografia argitaratzen da, aldaketa egitea xedetzat duen dekretu honen eranskinean.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko irailaren 29an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

3.- En el lecho y ribera de Musco.

a.- Usos permitidos.

- Ninguno.

b.- Usos autorizables.

- Observación e investigación científica.

- Trabajos de gestión del humedal encaminados hacia la adecuación y recuperación ambiental del mismo.

c.- Usos prohibidos.

- Todos salvo los usos autorizables.»

4.- El artículo 4 del Decreto 417/1995, de 19 de septiembre, queda redactado como sigue:

«Artículo 4.- Zona periférica de protección.

1.- La Zona Periférica de Protección del Biotopo Protegido del Complejo Lagunar de Laguardia será la que se describe a continuación:

a) En las Lagunas de Carralagroño, Carravalseca y Musco, la cuenca natural de aguas vertientes que circunda el área protegida, hasta 25 metros al sur de la carretera A-124.

b) En el Prao de la Paul, una franja de 100 metros alrededor del área protegida así como la franja de terreno sobre la que discurre la tubería de conducción de agua desde el río San Ginés.»

5.- Las referencias que en el artículo 5.1 del Decreto 417/1995, de 19 de septiembre, se hacen hacia «Las lagunas de Carralagroño y Carravalseca» se reemplazarán por las de «Las Lagunas de Carralagroño, Carravalseca y Musco».

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

En anexo al presente Decreto de modificación se publica la cartografía representativa del ámbito territorial del Biotopo Protegido del Complejo Lagunar de Laguardia y su Zona Periférica de Protección.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de septiembre de 1998.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

ERANSKINA / ANEXO

